

Euskarazko hitz-elkarketa kopulatiboen egitura eta interpretazioaz

Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Aritz Irurtzun

CNRS-IKER

Laburpena

Lan honetan euskarazko hitz-elkarketa kopulatiboen (e.g. aita-amak, andre-gizonak, etab.) egituraren eta interpretazioaren azterketan urrats bat eman nahi izan dugu. Horretarako hitz elkarketa mota batzuen egituraz kontu emateko gramatika sortzailaren barruan berriki proposaturiko aztermolde bat hartzen dugu oinarri, non hitz-elkarketa guztien pean egitura funtzional jakin bat dagoela proposatzen den (Di Sciullo 2005a/b, 2009, besteren artean). Euskarazko hitz-elkarketek egitura sintagmatiko soila dutela, eta beraz, deribazio morfologikoan gertatzen direla aintzat hartuz (Irurtzun 2013), hitz-elkarketa kopulatibo baten predikazioaren objektuak pluralitate bat adierazi behar duela ondorioztatzen dugu. Baina pluraltasun hori osatzen duten elementuek ez dute zertan multzo bat osatu behar: multzo hori osatzen duten elementuek/indibiduoeak aski dute hitz-elkartuaren propietate bat betetzearekin, horretarako hitz-elkartuak predikatuek disjuntzio bidez elkartzen direla proposatuz.

0. Sarrera*

Euskarak bere-berea duen prozesu lexikogenetikoa da hitz-elkarketarena, aspalditik euskal gramatika-lan deskriptiboetan berariaz aipatzen dena

* Egileak hurrenkera alfabetikoan agertzen gara. Eskerrak eman nahi genizkieke Beatriz Fernandez eta Pello Salabururi bilduma honetarako artikulu hau idazteko gonbidapena luzatu izanagatik. Ikerketa hau ondorengo proiektuen laguntzari esker burutu ahal izan da: IT769-13 (Eusko Jaurlaritza), CNRS-ko Fédération Typologie et Universaux Linguistiques-eko FR2559, FFI2011-29218 (MICINN), FFI2011-26906, FFI2011-23356, FFI2013-43823-P (MINECO), UFI11/14 HiTeDi-LingTeDi (UPV/EHU), ISQI 2011 JSH2 004 1 (ANR), *TypoImp* (Franco-German ANR/DFG), BCS-1147083 (National Science Foundation), eta *La phrase dans la langue basque et les langues voisines: une approche comparative* (GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi). Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez.


(*cf.* besteak beste, Uhlenbeck 1911; Azkue 1923/25; Lafitte 1944; Villasante 1974; Hualde 2003 edota de Rijk 2008) nahiz eta batzuen ustez, interes handirik gabeko gaia izan.¹ Agian horrexegatik, oso gutxi izan dira hizkuntzalarrak formalaren ikuspuntutik hitz-elkarketak ikertu dituzten lanak (*cf.* Azkarate 1990, 2002; Irurtzun 2013).

Lan honetan hutsune hori betetzeko urrats batzuk eman nahi ditugu euskarazko hitz elkarketa kopulatiboaren egitura eta interpretazioaren azterketa bat eginez. Lehen atalean hitz-elkarketa mota batzuen egituraz kontu emateko gramatika sortzailearen barruan berriki proposatu den aztermolde bat aurkeztuko dugu. Jarraian, 2. atalean euskarazko hitz-elkarketa kopulatiboari helden diegu haien osaera eta interpretazioen deribazioaz gure proposamena egiteko. Azkenik, 3. atalean etorkizuneko zenbait langai laburki eztabaidatzen ditugu.

1. Hitz-elkarketaren egitura

Euskaltzaindiak, urtetan egindako lanetan euskarazko hitz elkarketa-
ren taxonomia xehea aurkeztu du (*cf.* Euskaltzaindia 1987; Azkarate & Perez 2014; Azkarate 1991 eta Zalbide 1992). Dena den, ez da berariazko lan askorik egin haien egitura eta interpretazioaren deribazioari dagokionez. Atal honetan, hitz-elkarketaren egiturari buruz berriki egin den analisi bat gainbegiratu dugu: A.M. Di Sciulloren Asimetria Teoriaren ildoko analisia.²

Di Sciulloren arabera (ikus Di Sciullo 2005ab, 2009, besteren artean) egitura funtzional bat legoke hitz-elkarketa guztien azpian. Ideia honi *F-Zuhaitzaren hipotesia* deritzo. Honela, elkarketaren osagaiak F-zuhaitzaren espezifikatzailean (A), ala osagarrian (B) koka daitezke, (1)-eko zuhaitzaren F buru-lehen batekin irudikatu bezala:




¹ Uhlenbeck-ek, *Lingua* aldizkariko lehen alean honela dio «Tout bien considéré, les types des composés du basque ne sont pas d'un grand intérêt pour la linguistique générale (même pas quelques types spéciaux que nous avons passés sous silence). Raison de plus pour ne pas nous y attarder davantage [...]» (Uhlenbeck 1949: 70).


² Ikus Harley (2009) eta haren segizioko Jackson & Punske (2013) Morfologia Bananduaren ildoko analisi baterako.

F burua izango da hitz konposatuaren nolakotasuna adieraziko duena, eta, hizkuntza eta egituraren arabera, agerikoa nahiz isila izan daiteke.³ Euskaraz, Irurtzunen (2013) azterketari jarraiki, Fren izaera askotarikoa izan daiteke: badira operatzaile gisakoak (ETA, EDO), *dvandva* gisakoetan leudekeenak (2a-b), eta badira buru erlazionalen gisakoak (SAILKATU), hitz elkarketa sintetikoetako osagaiak antolatuz (3):


(2) a. *txuri-urdin*



b. *seme-alaba*



(3) *oliba-olio*



Funtsezko egitura hau unibertsala bada ere, bada hizkuntzen arteko desberdintasunak nabarmen eragingo dituen faktore bat: hitz elkarketa deribazioaren zein eremutan gertatzen den. Di Sciulloren (2005b) Asimetria Teoriaren arabera, elkarketak deribazio morfologikoan (D_M) nahiz deribazio sintaktikoan (D_S) gerta daitezke. Hizkuntzaren arabera, batean edo bestean gertatuko da, eta honek hainbat ondorio izango ditu konposatuaren interpretazio semantiko eta morfofonologikoan. Adibidez, Di Sciullo (2005a) ingelesezko («taxi-driver») eta frantsesezko («chauffeur de taxi») elkarketen aldeaz aztertzerakoan azken hauek egitura sintagmatiko aberatsagoa dutela proposatzen du (ageriko osagai funtzional batekin «de», «à»...). Bestalde, frantsesezko sintaxiaren hitz ordena ere badute (osagarri zuzena-aditzetiko nominalizazioa), ingelesezkoek ez bezala (aditzetiko nominalizazioa-osagarri zuzena). Desberdintasun hauetaz kontu emateko frantsesezkoak D_S baina ingelesezkoak D_M n deribatzen direla defendatzen du.

Euskarara etorruta, begi-bistan ikus daiteke ingelesezkoen antza handiagoa dutela frantsesezkoena baino (euskaraz hitz ordena konposatuetan eta perpausetan berbera bada ere (osagarria-adizkia), egitura sintagmatiko hu-

³ Adibidez, euskarazko *dvandva* elkarketetako F burua *-ta-* gisara ahoska daiteke egitura batzuetan: talde *zuri ta gorria*, *kafe t(a) esne* bat, etab. Modu berean, F disjunktiboa ere *zer (ed) o zer* bezalako egituretan agerikoa izan daiteke.

tsala dute (euskaraz izen biluziak agertzen zaizkigun egitura bakanetakoak ditugu)). Honelako ebidentzian oinarrituta, Irurtzunen (2013) arabera euskarazko hitz elkarketak, ingelesezkoak bezalaxe, D_M^n sortzen dira.

Hurrengo atalean hitz elkartu kopulatiboen egitura eta interpretazioari helduko diogu.

2. Konposizionalitatea: Kopulazioa eta pluralitatea

2.1. Hitz elkartu kopulatiboak

Orain arte hitz elkarketaz oro har hitz egin badugu ere, hitz elkarketa kopulatiboak dira lan honen ikergaia (*dvandva* gisakoak). Azkaratek (1990) *hitz elkartu kopulatiboen* ondoko sailkapena proposatzen du: (a) *Dvandv*: *zeru-lurrak, aiton-amonak, joan-etorriak...* (b) Gehiketa motakoak: *afari-merienda, barre-algara...* (c) Atributiboak: *mirabe sorgina, erri lapur, lehoi eme...* (d) Aposizioak: *Kepa jostuna, Nazaret hiria, Nobel saria...* Eta beraien artean Deiturak, hots, jaun edo andre osagaiez sortuak: *Zakarias Astiz jauna, abade jauna, jaun erretora...* (e) Tautologiak: *mandamula, proximo laguna, vssu colomba...* (f) *Subsumptive* deitutako azpisaila, eta, oro har 'Species-Genus' erlazioa erakusten duena bi osagaien artean: *bake hitza, kopa otarra, ler arbola...*

Areago, *dvandva* motakoen artean (maila berean dauden kategoria gramatikal bereko bi osagaiz eratuak direnen artean) ere sail desberdinak egin daitezke. Lan honetarako *izen arrunt elkartuak* dira interesatzen zaizkigunak, eta zehazkiago pertsona nahiz animalia adierazten duten bi izen arrunt bizidunetz osatutakoak. Azkaratek (1990: 163) ondoko zerrenda ematen du: *aita-amak, andre-gizonak, neska-mutilak, senar-emazteak, aita-semeak, ama-alabak, anai-arrebak, amagiarreba-erraiñak, ama-suñok, animalia bestiac, apaiz-gotzaiak, apez serorak, ardi bildotsak, arsto-idiequi, asto-txakurrek, dama-galaiak, espos esposac, errege-erregiñak, gixa-emien, burraso-haurren, idi-beiak, koinat iloben, mirabe-morroiak, mutiko-neskatoak, osaba-illobak, zaldi-mandoen, soso-birigarroak...* Haietako batzuk ihartuxetzat eman bagenitzake ere, sistema bizia da euskaraz. Adibidez, J. Sarrionandiak idatzi eta R. Ordorikak abesten duen «Martin Larralde»ko (4) halaxe sortua dateke; baita Euskaltzaindiaren LEF batzordearen 4. liburukiaren azpтитuluko (5) elkarketa ere:

- (4) Etxe elizetan otoitzak.
- (5) Euskaltzaindiaren gomendio-arauak.

Esan nahi baita, (5)eko adibidean «gomendio-arauak» predikatu konplexu bat genuke, seguruen, argitalpen horretarako berariaz sortutakoa. Honela bada, *dvandvagintza* hiztun batzuegan ihartutako prozedura bada ere, aurrerago esan bezala beste askok operazio produktibotzat dute eta se-

kula entzun gabeko konposatuak sor ditzakete. Areago, aipagarria da halako *dvandva* berriak sortzeko gaitasuna hiztun batzuentzat ihartua izanagatik ere, euskaldun orok ulertzen duela (5)eko «gomendio-arauak» hitz elkarketa horren azpian *dvandva* egitura bat dugula, eta hala izanik, zein den haren interpretazioa (hau da, «gomendiotasunaz» eta «arautasunaz» osatutako predikatu konplexua dela).


Hurrengo atalean heltzen diogu elkarketaren komposizionalitatearen afera honi.

2.2. Kopulatiboen egitura eta interpretazioa

Orain arte ikusitako *dvandva* hitz elkartu guztietan komuna dena da ba-dirudiela izen biluziz osatutako izen konposatu bat dugula, eta oro har, eskui-neko osagaiak artikulatu plurala daramala atxikita; bestela, egitura ezgramatikala gertatzen baita.⁴

- (6) Jon eta Miren anai-arrebak dira.
- (7) *Jon eta Miren anaiak-arrebak dira.
- (8) *Jon eta Miren anaiak-arreba dira.

Honela bada, balirudike elkarketa kopulatiboen F-zuhaitza (9)ren ildoko DS egitura baten azpian agertzen dela:




Kontua da ea zein den Fk (9) bezalako egituretan egiten duen ekarpena. Hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez, afera irudituko lukeena baino konplexuagoa da.

Ikusi denez, (6) bezalako hitz elkarketa kopulatiboetan bi predikatu monadiko elkartzen ditugu:⁵ ANAIA(x) eta ARREBA(x). Honek pentsaraz lezake hasiera batean predikatuon konjuntzioa dugula elkarketaren azpian (*cf.*

⁴ Ikus, honekin lotuta *osotasun lexikalaren hatsarrea* 'Lexical Integrity Principle', *cf.* Anderson (1992); Booij (2009).

⁵ (6)ko izenak erlazionalak direlakoan ados ez dagoenak ordezka ditzala «neska-mutil» gisa-koekin.


Azkue 1923/25; Villasante 1974 besteren artean). Hau da lehen (2a)n ikusita-koaren haritik, (10) genukeela (6)ren azpian:



Hala ere, iragar daitekeen bezala, honelako analisi batek paradoxak sortzen ditu, izaki batez kontrajarriak diratekeen bi propietate predikatuko genituzkeelako:

$$(11) \exists x (ANAIA(x) \wedge ARREBA(x))$$

Jakina, hori ez da (6)ri dagokion interpretazioa, anaia+arrebatusuna p ezin baitira predikatu predikazioaren objektu diren «Jon» eta «Miren»ez. Nahi dugun forma logikoa, anaiatasuna «Jon eta Miren»etako batez eta arrebatusuna besteaz predikatzen denekoa da. Konponbidea, beraz, disjuntzioarenetik etor liteke. Honela bada, (2b)ren ildotik (6)ren azpian (12)ko egitura dugula proposa genezake:



Tamalez, (12)ko egiturak interpretazio zuzenerako bidea irekitzen badu ere, bere eskuko arazoak ere sortzen ditu. Hasteko, disjuntzio bidezko analisi bat motz gelditzen da (13)ko datua azaltzeko. Aintzat hartuta (13)ko elkar-ketaren azpian $ANAIA(x) \vee ARREBA(x)$ dugula, (13)ko perpausak gramatikala behar zukeen, azken finean (14)ko bere aldaera aldakia, hutsala, baina guztiz gramatikala baita:

(13) *Jon anai-arreba da.

(14) Jon anaia edo arreba da.

Nolabait esateko, emango luke hitz elkarketa kopulatibo baten predikazioaren objektuak nolabaiteko pluralitate bat adierazi behar duela, ematen

baitu DS plural bezaberik ezin dela predikatu (ikus beherago). Areago, predikazioaren objektuak hitz elkarketako bi predikatuak asebetetzen baditu ere (eman dezagun (15)eko «Jon»ek baduela haurrik), DS bakuna baldin bada bere denotazioan emaitza ezgramatikala da.⁶ Gisa berean, (16)ko galdera ezin daiteke ulertu «Ba al dago hemen anaia edo arreba den inor?» bezala (horrenbestez (16B)ren ezegokitasuna); aitzitik, halabeharrez bikote (edo *nkote*) batez predikatu behar da (16B'):

- (15) *Jon aita-semea da.
 (16) A: Ba al dago hemen anai-arrebarik?
 B: #Bai, ni.
 B': Bai, gu.

Bestalde, eta (13)ko datuarekin loturik, badago gehitu beharreko beste murriztapen bat disjuntzioaren analisi sinplea hein batean zalantzan jartzen duena: hitz elkarketa kopulatiboa DS plural batez predikatuzeko, konposizioan parte hartzen duten izen guztiak (hau da, biek «anaia», «arreba») nolabait multzoa osatzen duten banakoetakoren batez predikatu behar direla. Beste modu batera esanda, predikazio hutsala ez dela onargarria euskarazko hitz elkarketan. Honela, lehen ikusitako (17) erabat zuzena bada ere, (18) ezgramatikala da «Jon» eta «Aitor» anaiak izanik ere:

- (17) Jon eta Miren anai-arrebak dira.
 (18) *Jon eta Aitor anai-arrebak dira.

Eta, bidenabar, ez dirudi predikazio-behar hauek lotura hertsirik dutenik DSaren barruko hitz-ordenarekin:⁷

- (19) {Jon, Miren eta Ane/Miren, Ane eta Jon/Miren, Jon eta Ane...} anai-arrebak dira.

⁶ Pentsa liteke agian disjuntzio sinplea beharrean (\vee) disjuntzio eskusiboa (XOR, \oplus) izan behar genukeela (euskarazko «ala»ren baliokide logikoa), hartara (15) gramatikala izateko. Hala ere, erraz ikus daiteke horrek ez duela arazoa konpontzen, izan ere XOR analisi baten bidez (i) esaldia gramatikala izango zen (goiko (13) bezalaxe (aintzat hartuta «Jon»ek anaia bat baduela)):

- (i) *Jon aita-ama da.

Areago, «Jon»en aita «Peio» eta semea «Mikel» eztabaidara ekartzen baditugu (ii)ko perpau-saren gramatikaltasunak erakusten du XOR analisisia zurrunezia dela, «Jon»ek aldi berean aitatasuna eta semetasuna bete ditzakeelako (hiztun batzuentzat bederen):

- (ii) Peio, Jon eta Mikel aita-semeak dira.

⁷ Hiztun gehienok nahiago ditugu dagozkien predikazio-objektuen hitz ordena mantentzen duten elkarketak («Jon eta Miren anai-arrebak dira» > «Miren eta Jon anai-arrebak dira»), baina asimetria hori ezagutza gramatikaetik at dagoelakoan gaude.

Honela bada, eman lezake hitz elkarketak dituzten perpausen esanahia paradoxikoki osatzen dela. Izan ere emango luke

- (i) hein batean koordinazio bidez osatua dagoela (predikazioaren objektu anizkuna («Jon eta Miren»)) konjuntzioko izenen denotazioez osatua delako, funtsean plural bat dena (*cf.* Munn-en 1993 besteren artean), baina beste alde batetik
- (ii) hitz elkarketa osatzen duten predikatuetakako bakoitza (ANAIA(x); ARREBA(x)) ez zaiola predikazioaren objektu anizkuna osatzen duten osagaietakako bakoitzari aplikatu behar (ANAIA(Jon) \vee ARREBA(Jon), ANAIA(Miren) \vee ARREBA(Miren)).⁸

Hurrengo atalean interfazeko paradoxa hau askatzeko iradokizun bat proposatuko dugu.

2.3. Predikatuen elkarketa eta predikatu pluralak

Ikusi dugun bezala euskarazko *dvandva* elkarreetan sortzen zaigun esanahi konplexuak sistematikotasuna du; konposizionala da.⁹ Hau da, A eta B elkartzen ditugunean emaitza ez da ausazkoa ez eta arbitrarioa, aitzitik, $A \vee B$ motako predikatu bat sortzen dugu. Kontua da nola aztertu haien osaera eta interpretazioa hitzunik duten jakintza gramatikalarekin konposizionalitatearen hatsarrez kontu emateko.

Hizkuntzalaritzan ohikoa da predikatu plural baten semantika aztertzerakoan hari logika singular bat esleitzea. Adibidez, eman dezagun (20)ko perpausa. Aintzat hartuta lorontzietako batek ere ez duela laukirik osatzen bere eskutik, emango luke «lauki bat osatu» predikatua plurala dela (hainbat gauzaz predikatzen dela).

(20) Lorontziek lauki bat osatzen dute.

Hala ere, iradoki liteke (*cf.* Link 1983, et seq; Landman 1996; Schwarzschild 1996) laukiko lorontziak ez direla «lauki bat osatu» predikatua-ren balioak, baizik eta lorontzien *multzoa* dela «lauki bat osatu» predikatu singulararen balioa. Boolos-ek (1998) irekitako ildotik, ikuspegi hau oker dagoela iradoki nahiko genuke, eta *dvandva* hitz elkarketek hartarako ebidentzia interesgarria dakartela.¹⁰

⁸ Hiztun zurrunenetan (7. oin-oharreko (ii) ezgramatikaltzat jotzen dutenengan), predikazioaren objektua osatzen duten osagaietakako batek ezin ditu hitz-elkarketa osatzen duten predikatu bat baino gehiago bete (haien F burua XOR delakoan).

⁹ Ikus, beste askoren artean, Fodor (1998: 4. eta 5. kap.), Fodor & Lepore (2001), Groenendijk & Stokhof (2005), Szabó (2005) eta Werner, Hinzen & Machery (2012), hala nola Rodriguez & García Murga (2002) kontzeptu eta sintagmen konposizionalitatearen inguruan.

¹⁰ Ikus ere Schein (1993), Pietroski (2005) edota Oliver & Smiley (2013) bezalako lanak.

Ikusi dugun bezala, hitz elkartuotako predikazioaren objektuek pluralak izan behar dute; areago, ez dugu aintzat hartu beharrik pluralitate hori osatzen duten izakiek *multzo* bat osatzen dutenik:

(21) Gaur egungo neska-mutilek oso gustu desberdinak dituzte.

(21)eko perpausak hainbat irakurketa onar ditzake, besteren artean bat non «neskek» eta «mutilek» multzo desberdinu gisara gustu desberdinak dituzten elkarren artean, baina baita beste bat ere, non «neska» eta «mutil» bakoitzak besteekiko gustu desberdinak dituen. Izan daiteke ere neska batzuek eta mutil batzuek gustu berdinak izatea, beste neska eta mutilenetatik urrun. Gisa berean, pentsa (22)ko perpausean:

(22) Neska-mutilek hiru antzezpen egin zituzten.

Hau egiazkoa izan daiteke, demagun, Jonek eta Mirenek elkarrekin antzezpen bat egiten badute, Peiok eta Ainarak beste bat eta abar. Baina berdina posible da ere «neska» edo «mutiletako» bakoitzak bere monologoa egiten duen egoera batean, edota «neskek» beren aldetik eta «mutilek» beren aldetik antzezpen bana egin dutenean edota guztiak elkarrekin antzezpen handi bakar bat egin dutenean. Pietroskik (2005) jartzen duen moduan «pluralitateak ez du halabeharrez lankidetzarik suposatzen», hau da, ez diogu zertan «neska-mutilen» *multzo* bati erreferentziarik egin behar.

Honela bada, eta aldagai pluraletarako letra larrizko notazioa erabiliz hauxe da «neska-mutil»entzat proposatu nahi genukeen forma logikoa:

(23) $\exists X(\forall x(Xx \leftrightarrow \text{NESKA}(x) \vee \text{MUTIL}(x)))$

Alegia, badira izaki *batzuk* non eta haietako bakoitza neska den, *edo* mutila den.¹¹

3. Etorkizuneko langaiak

Pluraleko formaz agertzen zaizkigun elkarketa kopulatiboen artean, badira bi nolabaiteko arazo direnak proposatzen dugun forma logikoarentzat. Lehena, Wächlik (2005) «imitaziozkoak» deitzen dituen hitz konposatu kopulatiboak dira. Imitaziozko hitz-elkarketa kopulatiboek bi atal dituzte:

¹¹ Aldiz, 7. oin-oharreko (ii) perpausa testuinguru horretan ezgramatikaltzat jotzen dutenentzat (interpretazio zurrunena egiten dutenentzat) formula berdina litzateke disjunkzio sinpleko *edo* beharrean disjunkzio esklusiboko (XOR) *ala* jarrita:

(iii) $\exists X(\forall x(Xx \leftrightarrow \text{NESKA}(x) \oplus \text{MUTIL}(x)))$

lehen lexiko arruntetik ateratako hitz bat; bigarrena bere eskuko izaera lexikorik ez duen elementu bat, baina aurrekoari antzekotasunez lotzen zaiona. Era horretakoak dira, euskaraz, «iritzi-miritziak», «erran-merranak», «hitz-mitzak» edo «izkiri-miriak», azken honen lehen atala izkirio hitzari loturiko forma bat baldin bada bederen. Hitz konposatu hauen forma nagusia pluralekoa da, OEH eta *Egungo Euskararen Hiztegiak* (EEH) ematen dituzten adibideen arabera, eta alde horretatik *ama-alabak* edo *aita-semeak* bezalako tankerakoak dira. Hitz konposatu hauek bi eratako arazoak dituzte: bata, hitz konposatuaren bigarren atalak ez duela agerpen beregainik lexikoan, eta lehen atalaren mendeko forma bat dela (mendekotasun hori antzekotasun fonologiko eta morfologikoaren bitartez adierazten da); bigarren arazoa da delako bigarren atal horrek berariazko zerbait ekartzen diola konposatuaren interpretazioari. «Erran-merranak» hitza ez dagokio besterik gabe erran bilduma bati, «izkiri-miri» bezalako zerbait izkirio multzo huts bati ez dagokion bezalaxe. Biek ala biek oinarritzko hitzaren hedapen moduko bat dakarte: erranak gehi erranen kategoriatzat jo ditzakegun bestelako bazterreko formak, izkirioak eta haien barnean nola edo hala bil daitezkeen bestelako adierazpenak.

Haien sorreran erreduplikazio gisako operazioen bat dagoela pentsa liteke, ingelesezko *shm*-erreduplikazioetan gertatzen denaren antzera (cf. Nevins & Vaux 2003). Nola formulatu esanahiari dagokion hedapen hori? Posibilitate bat, aurreko forma logikoa baliatuz, hitz konposatuaren bigarren terminoa emendiozko funtzio batez hornitzea da. Funtzio horrek hitz konposatuaren lehen atala hartuko luke input gisa, eta hitz horren esanahiari errepresentazionalki lotua den entitate bat emango emaitza gisa. Posibilitate hau Reuland-ek (2001: 481) eta Lidz-ek (2001: 129) erlazio anaforikoen alorrean anafora konplexuen eta sinpleen arteko diferentzia semantikoa irudikatzeko baliatzen dutena da. Forma logiko egokia, kasu honetan, honelakoa litzateke, non *f* antzekotasun funtzioa den:

$$(24) \exists x \exists (f) (\forall x (Xx \leftrightarrow \text{ERRAN}(x) \vee f(\text{ERRAN}(x)))$$

Lexikoan, antzekotasun funtzioa ikonikoki antzekotasun morfofonologiko gisa azaleratzen da.

Bigarren klase arazotsua izaera kolektiboa (Wälchli, 2005: 141-142) duten hitz konposatuen kasua da, hala nola «zeru-lurrak», edo «gogo-bihotzak». Hitz elkartu hauen izaera kolektiboa determinazioaren mailan antzeman daiteke. «Neska-mutil batzuk» bezalako determinatzaile sintagmak arruntak bada dira ere, «zeru-lur batzuk» bitxi ematen du, eta orobat «gogo-bihotz batzuk». Iduri du honelako formek, pluralekoak izan behar dutelarik nahitaez, ez dutela distribuzioa aise onartzen. Alde horretatik esan daiteke haien portaera pluralitatearen alorrean irakurketa kolektiboa behartzen duten egitura semantikoen ikuspegitik ulertu behar dela. Hau zehazki nola gertatzen den aztertzea ondoko lanetarako uzten dugu.

Aipamenak

- Azkarate, Miren. 2002. «Hitz-elkarketa, argumentu-egitura eta theta rolak». In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk, ASJUren Gehigarriak XLIV*. Bilbo: UPV/EHuren Argitalpen Zerbitzua. 91-104.
- Azkarate, Miren. 1991. *Hitz-elkarketa /3: LEF batzordearen lanak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Azkarate, Miren. 1990. *Hitz elkartuak euskaraz*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- Azkarate, Miren & Elixabete Perez. 2014. *Hitz-elkarketa /2: LEF batzordearen emaitza*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Azkue, Resurrección María. 1923/25. *Morfología vasca*. Bilbo: Editorial Vasca.
- Booij, Geert. 2009. «Lexical Integrity as a Formal Universal: A Constructionist View». In S. Scalise et al (arg.), *Universals of Language Today*. Dordrecht: Springer. 83-100.
- Boolos, George. 1998. *Logic, logic and logic*. Cambridge (MA) & Londres: Harvard University Press.
- Di Sciullo, Anna Maria. 2009. «Why are compounds a part of human language? A view from Asymmetry Theory». In R. Lieber & P. Štekauer (arg.), *The Oxford handbook of Compounding*. Oxford: Oxford University Press. 145-177.
- Di Sciullo, Anna Maria. 2005a. «Decomposing compounds». *Skase Journal of Theoretical Linguistics* 2: 3, 14-33.
- Di Sciullo, Anna Maria. 2005b. *Asymmetry in Morphology*. Cambridge: MIT Press.
- Euskaltzaindia. 1987. *Hitz-elkarketa /1: LEF batzordearen lanak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fodor, Jerry A. 1998. *In Critical Condition*, Cambridge (MA): MIT Press.
- Fodor, Jerry A. & Ernie Lepore. 2001. «Why compositionality won't go away: Reflections on Horwich's 'Deflationary' Theory», *Ratio* 14, 350-368.
- Groenendijk, Jeroen & Martin Stokhof. 2005. «Why Compositionality?». In G. Carlson & J. Pelletier (arg.), *Reference and Quantification: The Partee Effect*, Stanford: CSLI Press. 83-106.
- Harley, Heidi. 2009. «Compounding in Distributed Morphology». In R. Lieber & P. Štekauer (arg.), *The Oxford handbook of Compounding*, Oxford: Oxford University Press. 129-144.
- Hualde, José Ignacio. 2003. «Compounds». In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 357-368.
- Irurtzun, Aritz. 2013. «Focal NSR and Stress Placement in Basque Phrases and N+N Compounds». *Linguistic Analysis* 38: 3-4, 207-242.
- Jackson, Scott & Jeffrey Punske. 2013. «Deriving English Compound Stress: Insights from Distributed Morphology and Multiple Spell Out». *Linguistic Analysis* 38: 3-4, 243-274.
- Lafitte, Piarres. 1944. *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*. Berrikusitako eta zuzendutako bertsioa [1995]. Donostia: Elkarlanean.
- Landman, Fred. 1996. «Plurality». In S. Lappin (arg.), *Handbook of Contemporary Semantics*, London: Blackwell. 425-457.
- Lidz, Jeffrey. 2001. «Condition R». *Linguistic Inquiry* 32: 1, 123-140.
- Link, Godehard. 1983. «The Logical Analysis of Plurals and Mass Terms: A Lattice-Theoretic Approach». In R. Bauerle et al (arg.), *Meaning, Use, and Interpretation of Language*. Berlin & New York: Walter de Gruyter & Co. 302-323.

- Munn, Alan B. 1993. *Topics in the Syntax and Semantics of Coordinate Structures*. doktorego tesia, University of Maryland.
- Nevins, Andrew & Bert Vaux. 2003. «Metalinguistic, Shmetalinguistic: “The Phonology of Shm- Reduplication”». *Proceedings of the 39th Chicago Linguistics Society*. 702-721.
- Pietroski, Paul. 2005. *Events and Semantic Architecture*. Oxford: Oxford University Press.
- Reuland, Eric. 2001. «Primitives of Binding». *Linguistic Inquiry* 32: 3, 439-492.
- Rijk, Rudolph P.G. 2008. *Standard Basque: A Progressive Grammar*. Cambridge: MIT Press.
- Schein, Barry. 1993. *Plurals and Events*. Cambridge: MIT Press.
- Schwarzschild, Roger. *Pluralities*. Dordrecht: Kluwer.
- Szabó, Zoltan G. 2005. «Compositionality». In E. Zalta (arg.), *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* [<http://plato.stanford.edu/archives/spr2005/entries/compositionality/>]
- Szabó, Zoltan G. 2000. «Compositionality as supervenience». *Linguistics and Philosophy* 23, 475-505.
- Uhlenbeck, Christianus Cornelius. 1949. «La langue basque et la linguistique générale». *Lingua* 1, 59-76.
- Uhlenbeck, Christianus Cornelius. 1911. «Quelques observations sur les noms composés en basque». *RIEV* 5, 5-9.
- Villasante, Luis. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu.
- Wälchli, Bernhard. 2005. *Co-compounds and Natural Coordination*. Oxford: Oxford University Press.
- Zalbide, Mikel. 1992. *Hitz-elkarketa /4. Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera: LEF Batzordearen Emaidza, Euskaltzaindiaren Gomendio-arauak*. Bilbo: Euskaltzaindia.